


# IRURAKO HERRI-OSTATUAREN KUDEAKETA-EREDUA ETA ESPAZIOAREN ANTOLAKETA ADOSTEKO PARTAIDETZA- PROZESUA

2022ko ekaina



# AURKIBIDEA

<b>1</b>	<b>SARRERA.....</b>	<b>1</b>
<b>2</b>	<b>HELBURUAK.....</b>	<b>2</b>
	2.1 Helburu nagusia.....	2
	2.2 Helburu zehatzak eta zeharkakoak.....	2
<b>3</b>	<b>PARTAIDETZA-PROZESUA .....</b>	<b>3</b>
	3.1 Abiatu .....	4
	3.2 Ezagutu .....	6
	3.2.1 Informazio bilketa.....	6
	3.3 Elkarrekin eraiki .....	7
	3.4 Itxi eta gizarteratu .....	9
<b>4</b>	<b>IRURAKO HERRI-OSTATUA .....</b>	<b>10</b>
	4.1 Irurako herri-ostatuaren balioak .....	10
	4.2 Zerbitzuak.....	10
	4.2.1 Ostalaritza-zerbitzua .....	10
	4.2.2 Kultur-eskaintza .....	11
	4.2.3 Bestelako zerbitzu eta eskaintza.....	12
	4.3 Bizikidetzarako irizpideak.....	12
	4.4 Espazioaren antolaketa .....	14
<b>5</b>	<b>ERANSKINAK.....</b>	<b>15</b>

## 1 SARRERA

Irurako herritarrek Zahar Etxea zena herri-ostatu izatea erabaki zuten iaz hiru udal-eraikinen egokitzapena eta erabilpena adosteko egindako partaidetza-prozesuan. Herriko plazan kokatua, herriari bizitza emango dion espazio bat izatea eskatu zuten, ostatu jardueraz gain bertan formatu txikiko kultur-ekitaldiak egiteko aukera eskainiko zuena.

Eskaera hau baina ez da azken urteetako kontua, izan ere, duela laupabost urte, zahar etxearen beheko solairuan ostatu bat irekitzeko asmoa tarteko Irurako Udalak obra-proiektu bat landu baitzuen.

Testuinguru honetan, Irurako Udalak, Elhuyarren aholkularitzarekin, partaidetza-prozesu berri bat egin du herritarrekin batera herri-ostatuaren kudeaketa-eredua definitu eta espazioaren antolaketa adosteko. Jarraian, emaitza.

## 2 HELBURUAK


### 2.1 Helburu nagusia

Irurako herritarren artean herri-ostatuaren kudeaketa-eredua eta espazioaren antolaketa adostea.

### 2.2 Helburu zehatzak eta zeharkakoak

- Irurarrek zer nolako herri-ostatu nahi duten ezagutu eta zein balioen gainean eraiki behar den lehenestea.
- Kudeaketa-eredu desberdinak ezagutu eta herritarren erantzunkidetasunean sakontzea.
- Kudeaketa-eredua definitu eta ezinbesteko funtzionamendu baldintzak eta egiturak adostea, herritarren arteko elkarlana sustatuz.
- Espazioaren banaketa irudikatu eta egin beharreko obrak adostea.
- Udalaren eta herritarren arteko zubiak eraikitzen jarraitzea, gauzak elkarrekin landu eta erabakitzeko kulturaren sakonduz.
- Herri-nortasuna sendotzea eta Irurarren bizi-kalitatea handitzea.
- Parte hartzeko kultura zabaltzea.

### 3 PARTAIDETZA-PROZESUA



Irurako herri-ostatuaren kudeaketa-eredua eta espazioaren antolaketa adosteko partaidetza-prozesua lau fasetan egin da:

**Abiatu – Ezagutu – Elkarrekin eraiki – Itxi eta gizarteratu**

**3.1 Abiatu**

Hasteko eta behin, prozesua abiatzeko baldintzak ezarri dira, eta horretarako, talde eragilea izeneko lan-egitura eta jarraipen-batzordea aktibatu dira.

**Talde eragilea**

Hurrengoek osatu dute:

Izen Abizenak	Ardura
Gorka Murua Macuso	Irurako alkatea
Olaia Nieto Legarra	Irurako Gazteria eta Parte Hartze zinegotzia
Iñaki Arregi Garitano	Irurako Udaleko udal-arkitektoa
Josune Artola Arregi	Irurako Udaleko partaidetza-teknikaria
Idurre Zugazagasti Aja	Elhuyar

Talde eragilearen egitekoa prozesua arrakastatsua izateko baldintzak ezartzea izan da, adostutako lan-prozesua aurrera eramateko beharrezkoa informazioa bildu eta kudeatzearekin batera.

**Jarraipen-batzordea**

Jarraipen-batzordea Irurako Udaleko ordezkari politikoak, udal-teknikariek eta herritarrek osatutako egitura da eta partaidetza-prozesuaren jarraipena egitea izan da bere egitekoa.

Aurreko partaidetza-prozesuan osatutako jarraipen-batzordeari eman zaio segida, hala ere, partaide berriak batzeko ahalegina egin da, bai Irurako Udaleko gainerako ordezkari politikoei, baita herritarrei ere bertan parte hartzeko aukera eskainita. Lehenengoan kasuan, erantzuna ezezkoa izan da; bigarrenengoan partetik inor ez da boluntario eskaini.

Honela, hurrengoek osatu dute jarraipen-batzordea:

Izen Abizenak	Ardura
Gorka Murua Macuso	Irurako alkatea
Iñaki Arregi Garitano	Irurako Udaleko udal-arkitektoa
Iñigo Iñurrita Peñagaritano	Irurako herritarra
Josune Artola Arregi	Irurako Udaleko partaidetza-teknikaria
Naroa Ane Lasa Garaikotxea	Irurako herritarra
Olaia Nieto Legarra	Irurako Gazteria eta Parte Hartze zinegotzia

*Abiatu* izeneko fase honetan talde eragilea eta jarraipen-batzordea behin bildu dira.

Talde eragilearen lehenengo bileran Irurako herri-ostatuaren kudeaketa-eredua eta espazioaren antolaketa adosteko partaidetza-prozesua finkatu eta kronograma batera eraman dira, honen egikaritzarako lanak zerrendatu eta banatzearekin batera. Tartean, komunikazio-plana ere adostu da, partaidetza-prozesuan zeharreko une komunikatiboak aurreikusi eta prestatu beharreko komunikazio-euskarriak irudikatu dira.

Jarraipen-batzordearen lehenengo bileran aldiz, Irurako herri-ostatuaren kudeaketa-eredua eta espazioaren antolaketa adosteko partaidetza-prozesua partekatu eta batzordea osatu da, partaidetza-prozesua modu orokorrean arautu duten alderdiak jasotzen dituen akordio-orria onartu eta sinatzearekin batera.

Jarraipen-batzordearen oniritzia esku artean, komunikazio lanei ekin zaie, Irurako herri-ostatuaren kudeaketa-eredua eta espazioaren antolaketa adosteko partaidetza-prozesuaren berri zabaldu eta bertan parte hartzeko gonbidapena luzatu da. Alde batetik, prentsa oharra zabaldu da eta [Atarian](#) jaso dute partaidetza-prozesuaren berri. Bestetik, Irurako etxe guztietara partaidetza-prozesuaren berri jasotzen duen informazio-orria bidali da. Eta azkenik, herriko eragile desberdinei zuzeneko gonbidapena egin zaie, berariaz, Irurako kultur mahaian eta Irurako jubilatutako etxean aurkeztu delarik prozesua.

Honez gain, *Abiatu* fasean Irurako herritarrei zuzendutako 1. herri-batzarra egin da, non, Irurako herri-ostatuaren inguruko partaidetza-prozesua aurkeztu eta honekiko espektatibak landu diren. Guztira, 14 lagunek hartu dute parte, % 50 emakumeak eta gainerako % 50 gizonak. Aurkezpen-saioa on-line jarraitzeko aukera eskaini da eta une batez hiru lagun egon dira saioa jarraitzen.



Herri-batzar guztietan, saioak iraun bitarte, zaintza-zerbitzua eskaini da. Hurrengo izan da zaintza-zerbitzuaren erabilera:

Eguna	Haur kopurua
2022/02/14	1
2022/03/07	3
2022/03/21	0
2022/04/04	5
2022/05/02	4

## 3.2 Ezagutu

Irurako herri-ostatua elkarrekin eraikitzen hasi aurretik, beste herri-ostatu batzuk ezagutu dira. Horretarako, martxoaren 7an, astelehena, jardunaldi irekia egin da *Zer da herri-ostatu bat? Zergatik? Zertarako? Eta beste esperientzia batzuk* izenburupean.

Izen ematea: [www.irura.eus](http://www.irura.eus) web-orrian edo 943.69.26.74  
Zaintza-zerbitzua egongo da, horretarako, martxoaren 7an, 12:00ak aurretik jakinarazi behar da, 943.69.26.74 edo [gazteria@irura.eus](mailto:gazteria@irura.eus)

Herri-ostatuen inguruko kokapena Tolomendi elkarteko Iker Karrerak egin du herri-ostatuak herriari eta herritarren beharrei zerbitzu eman behar dien espazio publiko bat direla azpimarratuta.

Ondoren, Eneko Malloz eta Pello Garmendiak Orexako herri-ostatuaren esperientzia partekatu dute, Orexako Udalaren ordezkari eta herri-ostatu kudeatzaile gisa, hurrenez hurren.

Atzetik, Eider Martinezek Gabiriako Ostatuan daramatzaten hiruzpalau urteetako ibilbidea kontatu du, bidean topatutako zailtasun eta erraztasunak konpartituz eta lan egiteko moduetan egindako egokitzapenak azalduz.

Eta azkenik, eta kultura arloan kokatuz, Kulturaz – Azpeitiako Kultur kooperatibako Xabier Aranbarrik euren sorreratik gaur egun arte euren lan egiteko modua zein izan den aurkeztu du, Sanagustin Kulturguneko adibidea ekarriz.


Guztira, 20 lagun bildu dira, hizlari eta parte hartzaileen artean. Bertaratutakoen % 60 emakumeak izan dira eta gainerako % 40 gizonak. Kasu honetan ere, jardunaldia online jarraitzeko aukera eskaini da eta pertsona 1 egon da saioa jarraitzen.

### 3.2.1 Informazio bilketa

Herri-ostatuen hainbat esperientzia ezagutzeko aukera eskaintzearekin batera, eta aurreikusi gabe egon arren, egoki baloratu da Irurako herritarren iritzia jasotzeko galdetegi bat zabaltzea. Informazio-orriarekin batera, Irurako etxe guztietara bidali da galdetegia eta eskuz edo online erantzuteko aukera eskaini da.

Honela, 62 pertsonak erantzun dute galdetegia, horietatik % 85k online eta % 15k, berriz, eskuz. Sexuari dagokionez, % 66 emakumeak, % 32 gizonak eta gainerako % 2 ez-bitarrak izan dira. Eta adin-tarteari erreparatuz gero, % 42 31 eta 45 urte bitartekoak, % 34 46 eta 64 urte bitartekoak, % 21 16 eta 30 urte bitartekoak eta % 3 60 urte baino gehiagokoak.





Jasotako erantzunak herritarren 2. batzarrean aurkeztu eta batzarretako lanketan txertatu dira, hala ere, erantzun guztiak eranskinetako 4. atalean daude jasota.

Aipatu ere, Irura Bizi elkartetik, partaidetza-prozesuko batzarretan parte hartzeko zailtasunak tarteko, euren iritzia idatziz helarazi dutela. Kasu honetan ere, eta galdetegiko erantzunekin egin bezala, herri-ostatuaren inguruko lanketan txertatu da.

*Ezagutu* fasean talde eragilearen bigarren bilera egin da, orain artekoaren balorazioa egin eta hurrengo herri-batzarren antolaketa eta planteamendua landu eta partekatzeko.

### 3.3 Elkarrekin eraiki

*Elkarrekin eraiki* fasean herritarrekin hiru batzar egin dira, horietako bakoitzean lanketa desberdina izan delarik.



Fase honetako lehenengo herri-batzarrean 12 pertsonak hartu dute parte, % 58 emakumeak eta gainerako % 42 gizonak izan dira. Eta Irurako herri-ostatuaren zein balioaren gainean eraiki behar den adostu da, baita herri-ostatuak zein zerbitzu eskaini beharko lituzkeen eztabaidatu ere, beti ere, adin desberdinetako herritarren behar eta nahiak kontuan hartuta.



Bigarren herri-batzarrean, aldiz, 10 lagunek hartu dute parte, % 80 emakumeak eta gainerako % 20 gizonak. Kasu honetan, eta lehen batzarreko lanketari jarraipena emanez, Irurako herri-ostatuaren bizikidetzarako irizpideak zeintzuk izan behar diren hausnartu dira, hala nola, profila eta formakuntza, harremanak eta parte hartzea, komunikazioa eta hizkuntza, ordutegia eta egutegia...

Eta hirugarren eta azken batzarrean, 8 pertsonak hartu dute parte, erdia emakumeak eta beste erdia gizonak. Eta aurreko batzarretan hitz egin eta adostutakoa aurrera eramateko Zahar Etxea zenaren espazioa nola antolatu irudikatu da, Iñaki Arregi udal-arkitektoaren azalpen eta laguntzarekin.



Fase honetan zehar, talde eragileko kideak behin bildu dira herri-batzarren martxa aztertu, hartu beharreko neurriak aztertu eta komunikazio-lanak adosteko.

Komunikazioari dagokionez, aipatu herri batzar guztietarako deialdiak Irurako web-orrian eta *Irura eskura!* aplikazioan zabaldu direla eta Tolosaldeko [Atarian](#) ere jaso dutela hauen berri.

Eta Elkarrekin eraiki fasea ixteko Jarraipen-batzordeak bigarren eta azken bilera egin du, Irurako herri-ostatuaren inguruan hausnartu, eztabaidatu eta adostutako aspektu desberdinen inguruko lanketa partekatu, partaidetza-prozesu arautzen duten aspektuak kontuan hartu eta errespetatu direla ikusi eta prozesu osoaren balorazioa egiteko.

### 3.4 Itxi eta gizarteratu

Amaitzeko, Irurako herri-ostatuaren oinarrien berri zabaldu da eta horretarako partaidetza-prozesua jasotzen duen eta emaitzaren berri ematen duen bideoa prestatu da. Bideoa Irurako Udaleko web-orrian eta ohiko komunikazio kanalen bidez zabaltzeaz gain, [Ataria](#)n argitaratu da prentsa-oharrarekin batera.

Hasiera batean aurkezpen-saio bat egitea aurreikusita zegoen arren, hau bertan behera utzi eta ahalegina komunikatiboki egitea erabaki da.

## 4 IRURAKO HERRI-OSTATUA

Hurrengo orrietan Irurako herritarren partaidetzarekin herri-ostatuaren inguruan landu eta adostutakoa

### 4.1 Irurako herri-ostatuaren balioak

Irurako herri-ostatu hurrengo balioetan oinarritzea adostu eta lehenetsi da:

1. **Gertukoa**, herritarrentzat konfiantzazko eta erreferentziazko tokia.
2. **Bertakoa**, tokiko eta garaiko produktuekin lan egingo du.
3. **Parte hartzailea**, herritarrekin eta herriko eragileekin elkarlanean arituko da.
4. **Euskalduna**.
5. **Inklusiboa**, herritarren askotariko beharrianak kontuan hartuko ditu.
6. **Segurua**, emakume eta gizonentzako espazio segurua.
7. **Ingurumenarekiko jasangarria**.

### 4.2 Zerbitzuak

Irurako herri-ostatu ostalaritzara bideratutako espazio bat izateaz haratago, askotariko kultur-eskaintza izatea adostu da, herritarren bestelako beharrak asetuko dituzten hainbat zerbitzu eskaintzearekin batera.

#### 4.2.1 Ostalaritza-zerbitzua

Irurako herri-ostatuaren jarduera nagusia ostalaritza izango da, baina ez nola nahiko ostalaritza-zerbitzua.

Hasteko eta behin, eta eskaintzari dagokionez, herritar orori zuzendutako eskaintza izatea adostu da, guztientzat eskuragarri izango dena. Honela, zer nolako eskaintza erabakitzerakoan hurrengoak lehenestea proposatu da:

1. Bokatak
2. Plater konbinatuak
3. Pintxoak
4. Eguneko menua
5. Gosariak
6. Karta

Hauek guztiak prestatzerakoan, aukera dagoenean behintzat, bertako eta garaiko produktua erabiltzea lehenetsi da, tokiko nekazaritza, abeltzaintza eta ekonomiari orohar, ekarpena eginez.

Aspektu honi lotuta, eta sukaldaritza motari dagokionez, sukaldaritza-tradizionalak pisu handiagoa izan behar duela ikusi da, adin-tarte desberdinetako herritarrei toki eginez. Nahiz eta, haur eta nerabeak erakartzeko hanburgesak, pizzak eta antzeko platerak izatea ere garrantzitsu iruditzen zaien beste hainbat lagunei.

Azkenik, janari eskaintza behar eta nahi desberdinak dituzten herritarrei zuzendua egon behar duela azpimarratu da, atentzio berezia jarriz behar bereziak eta alergia dituzten pertsonekin. Tartean, eskaintza begetarianoa izatea ere aipatu da.

#### 4.2.2 Kultur-eskaintza

Herri-ostatuaren derrigorrezko baldintza da kultur jardueretarako espazio izatea. Formatu txiki edo ertaineko jarduerak proposatu dira, hala nola: kontzertuak, antzerkiak, bertso-saioak, erakusketak, hitzaldiak, mahai inguruak, ikastaroak, ipuin kontaketak...



Kasu honetan ere, kultur-eskaintza adosterakoan Irurako herriaren aniztasuna kontuan hartzea ezinbestekotzat jo da, izan generoa, adina, jatorria, kultura eta beste hainbat aldagaien arabera.

Aho batez ere, herri-ostatuko kultur programazioa Irurako Kultur Mahaian landu eta erabakiko dela adostu da. Herriko eragileek, herritarrek eta herri-ostatuko kudeatzaileak luzatu ahalko dituzte proposamenak eta programa ixtearen ardura Kultur Mahaiarena izango da.

Jarduerak proposatzerakoan ere hainbat irizpide kontuan hartzea aipatu da: hasi, herriko edo eskualdeko kultur-gileei toki egiteak, segi hasi berriak diren artistetatik eta modu orokorrean, euskal kulturari eta herritarren gainerako kulturei espazio emateak. Herri ondarearen transmisioa ere bada kezka eta hortaz, hau ere bada jorratu beharreko beste aspektu bat.

### 4.2.3 Bestelako zerbitzu eta eskaintza

Ostalaritza-zerbitzuaz eta kultur-eskaintzaz haratago Irurako herri-ostatuak beste hainbat kontu eskaini beharko lituzkeela ikusi da, adibidez:

- Irurako informazioa eta agenda bistan izatea, izan Irurako Udalarena, herri eragileena...
- Herritarren parte hartze postontzia bertan kokatzea.
- Irurako eta eskualdeko informazio turistikoa izatea.
- Goxokiak saltzea.
- Bertako produktuen salmentarako toki bat ipintzea.
- Liburuak trukatzeko apal bat jartzea.
- Mahai jolasak eskura izatea.
- Iturriko ura hartzeko aukera ematea.
- Wifi irekia izatea.
- Mugi txartela kargatzeko aukera eskaintzea.
- Urtebetetze festak egiteko aukera zabaltzea
- ...

Aukera hauetako batzuk bideragarriak direla uste da; beste batzuk, kasuan kasu aztertu beharko dira; beste batzuekin erabilera baldintzak edo prozedurak zehaztu beharko dira; eta baliteke bakarren bat bideragarri ez izatea. Hala ere, guztiak jaso dira herri-ostatu martxan jartzen den egunean aztertu eta baloratu daitezten.

## 4.3 Bizikidetzarako irizpideak

Irurako herri-ostatuak emango duen zerbitzuaz haratago, badira herri-ostatuaren proiektua definitzen duten beste hainbat irizpide, ostatu hartuko duen kudeatzaileak kontuan hartu beharko dituenak.

Hauek izan dira landutako bizikidetzarako irizpideak:




Kudeatzailearen profila eta formakuntza



Harremanak eta elkarlana



Komunikazioa eta hizkuntza-irizpideak



Egutegia eta ordutegia

### **Kudeatzailearen profila eta formakuntza**

- Herri-ostatuaren kudeatzaileak sukaldaritza eta ostalaritza gaietan formakuntza eta esperientzia izatea.
- Formakuntza aldetik, hutsunerik detektatuz gero, ikastaro edo trebakuntza espezifikorako Irurako Udalak erraztasunak ematea.
- Ikasi eta garatzeko prestutasuna izatea.
- Euskaraz jakitea.
- Harremanetarako eta elkarlanerako pertsona irekia eta dinamikoa izatea.
- Pertsona malgua izatea eta herri-ostatuaren (eta herritarren) beharretara moldatzea.
- Herri-ostatuaren balioekiko atxikimendua adieraztea.
- Komunikazio gaietan (marketina, sare sozialak...) oinarrizko ezagutza izatea.
- Irurako herria ezagutzea
- Orohar, kulturarekiko ezagutza eta grina izatea.

### **Harremanak eta elkarlana**

- Herri-ostatuaren kudeatzailearen eta Irurako Udalaren arteko harremana zuzena eta iraunkorra izatea, zerbitzu publiko bat den heinean.
- Kultur Mahaian parte hertzea, bertan zehaztu eta erabakiko da herri-ostatuaren programazioa.
  - Kultur Mahaia hilean behin biltzea
  - Programazioa hiru hilabete behin argitaratzea
- Kultur ekitaldien proposamenerako prozedura zehaztea, hainbat irizpide finkatzearekin batera, hala nola, hizkuntza-irizpideak eta berdintasun-irizpideak.
- Maiztasun jakin batekin, herri-ostatuaren martxa baloratzea.
- Herriko beste tabernekin dinamika desberdinak proposatzea eta elkarlanean jardutea.

### **Komunikazioa eta hizkuntza irizpideak**

- Herri-ostatuaren eskaintza propioarekin batera, Irurako herriari buruzko informazioa zabaltzea.
- Herri-ostatuaren eskaintza zabala komunikatzea, hasi eskaintza gastronomikotik eta kultur-ekitaldien agendaraino.
- Horretarako, euskarri fisikoez gain, Irurako Udalaren edo honekin koordinazioan web-orria, sare sozialak, Irura Eskura! aplikazioa erabiltzea.
- Irurako herri-ostatuaren marka propioa sortu eta komunikazio guztietarako berau erabiltzea. Marka edo iruditeria Irurako herritarrek proposatutakoa eta aukeratutakoa izatea.
- Irurako Udaleko hizkuntza-irizpideak kontuan hartuta, komunikazio oro euskaraz izatea. Gaztelaniazko aukera eskura izatea.
- Orokorrean, komunikazio-euskarri guztiak irakurterrazak eta ulerkorrak izatea.

### **Egutegia eta ordutegia**

- Neguko eta udarako ordutegia izatea, lege eta ordenantzen ezarritako ordutegiaren barruan.
- Data berezietan ordutegia luzatzeko aukera izatea, Irurako Udalarekin adostuta.
- Astean jai-egun bat izatea gutxienez, ostirala, larunbata eta igandea salbu.
- Jai-egunak herrian ekitaldi batekin (izan, kultur ekitaldia, hileta...) kointziditzen badu, lan egin beharra, jai-eguna beste egun bategatik ordezkatzuz.
- Abuztuan oporrak hartzeko aukera (hilabete osoa).
- Urtean zehar astebete oporrak hartzeko aukera.

Bizikidetzarako irizpide hauetan jasotakoa proposamen bat da, Irurako Udalak ahalik eta zehaztasun handienez esleipen-pleguetan jasoko dituen irizpideak izanik.

#### 4.4 Espazioaren antolaketa

Zahar Etxea zena herri-ostatu izateko lokalean goitik beherako obra egin behar da. Egoera honen aurrean Irurako Udalak 2013. urtean landutako aukera desberdinak jarri ditu mahai gainean, batak zein besteak izan ditzakeen arazo edo onurak aztertzeko.

Herri-batzarretan parte hartu duten lagunen gehiengoak 3. aukeraren alde egin du, beste aukera berri bat proposatzearekin batera. Dena den, aukeraketa egiterako garaian hurrengo aspektuei erreparatu zaie, batik bat:

- Irisgarria izatea, noski
- Sarrera erdigunean izatea, ikuspegi zabala eskaintzea
- Ostatu irekia izatea, hau da, erabilera mugatuko espaziorik ez izatea
- Kultur ekitaldietarako espazio zabal bat izatea, leku desberdinetatik ikusteko modukoa
- Herritarrak gustura eta lasai egoteko leku atsegina izatea
- Langileen fluxuak eta herritarren joan-etorriak ondo uztartzea
- Sukaldea lanerako eroso izatea, eta ahal dela biltegia gertu kokatzea
- Komunitarako sarbidea erraza izatea
- Barran kanporako zerbitzua (leihoa) baloratzea

Hortaz, eta obra-proiektua arkitekto talde batek egin beharko duela kontuan hartuta, hitz egin eta landutako guztia eurei helaraztea proposatu da, euren ezagutza eta jakintzatik eta herritarren nahiekin bat eginez, herri-ostaturako proiektu egokiena landu dezaten.

*Partaidetza-prozesuko emaitzarekin Irurako Udalak herri-ostatuaren proiektua esleipen-pleguetan jaso eta epe ertainean argitaratuko ditu, tartean Zahar Etxea zenaren lokaleko arkitektura-proiektua onartu, obra esleitu eta obrak egin behar baitira.*



## 5 ERANSKINAK

1. Talde eragilea: bileretako aktak
2. Jarraipen-batzordea: akordio-orria eta bileretako aktak
3. Herri-batzarrak: aktak
4. Komunikazio euskarriak: kartelak, prentsa-oharrak, galdetegia, bideoa...